

1981/2021 Ebazpenaren eranskina, 2021eko irailaren 20koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaskuntzako errektoreordeak emana, zeinaren bidez zuzentzen baita Irakaskuntzako errektoreordeak 2021eko otsailaren 12an emandako 295/2021 Ebazpenean atzemandako akatsa, 2021-2022 ikasturteko unibertsitate masterreko ikasketa ofizialetako prozedura administratiboen egutegia ezartzen duen ebazpenekoa.

UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASKETAK

NUPen webgunean emanen dira ezagutzera Ebazpenean ezarritako epeak —aplikazio informatikoen, automatrikularako ikasgelaren, bulegoen eta antzekoen irekiera-ordutegiei buruzkoak—.

Data jakin batean onartua izanez gero, data horren ondo-ondoko epean SOILIK du ikasleak matrikula formalizatzeko eskubidea. Ikasleak ondo-ondoko epe horretan ez badu matrikula egiten, ikaspostua erreserbatzeko eskubidea galduko du; hortaz, berriz egin beharko du aurreinskripzioa hurrengo epean, eta gainerako ikasleen baldintza berberetan lehiatuko da. Baldin eta ikasketetan onartua izateko baldintza graduako titulua eskuratzea bada, titulua eskuratu eta ondo-ondoko epean formalizatu behar du ikasleak matrikula.

Epe guztiak prozesu bakoitzerako ezarritako azken eguneko 14:00etan bukatuko dira.

1. AURREINSKRIPZIOA

Unibertsitatean ikasteko bisa bat behar duten ikasleei gomendatzen zaie lehenbiziko aldian egin dezatela aurreinskripzioa; hartara, epeak beteko dituzte, eta garaiz iritsiko dira ikasturte hasierako eskoletara.

Aurreinskripzioa	Epeak
Aurreinskripzioa egiteko lehenbiziko epea (1)	2021eko martxoaren 1etik apirilaren 30era
Aurreinskripzioa egiteko bigarren epea (1)	2021eko ekainaren 1etik 25era
Aurreinskripzioa egiteko hirugarren epea	2021eko abuztuaren 2tik 13ra
Aurreinskripzioa egiteko laugarren epea (2)	2021eko irailaren 14tik 18ra

(1) Ikasketak amaitu dituzten eta gainerako baldintzak betetzen dituzten ikasleak soilik azalduko dira onartutako ikasleen zerrendetan. Hala ere, onartutako ikasleen 1. eta 2. zerrendetan, baldintza guztiak betetzen ez dituztenak ere onartuko dira, baldin eta masterreko batzorde akademikoak onesten badu eta eskatzaileak irailaren 7a baino lehen aurkezten badu masterrean sartzeko titulua. Egun hori pasatakoan ikasleak ez baditu baldintzak betetzen baina uste badu irailaren 30a baino lehen beteko dituela, mezu bat idatzi behar du posgrado@unavarra.es helbidera bere egoera azter dezaten eskatzeko.

(2) Aurreinskripzioa egiteko laugarren epea kasu honetan baino ez da zabalduko: zuzendaritza akademikoek baimena ematen badute masterretan ikasle gehiago onartzeko behin eskolak hasi ondoren. Masterrean onartuak izateko baldintzak betetzen dituzten ikasleen artean, eskaera-dataren arabera ordena zorrotzean onartuko dira ikasleak.

2. ONARTU DIREN IKASLEEN ZERRENDA, ERREKLAMAZIOAK ETA IKASLE BERRIEN MATRIKULA

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

	Onartuen zerrendak argitaratzea	Erreklamazioak	Matrikula
1.a	2021eko uztailaren 22an	2021eko uztailaren 23an eta 26an	2021eko uztailaren 28an eta 29an

1. eta 2. epeetako aurreinskripzioak baino ez dira kontuan hartuko zerrenda bakar honetan.

Gainerako masterrak

	Onartuen zerrendak argitaratzea	Erreklamazioak	Matrikula
1.a	2021eko maiatzaren 17an	2021eko maiatzaren 18an eta 19an	2021eko maiatzaren 24tik 26ra
2.a	2021eko uztailaren 22an	2021eko uztailaren 23an eta 26an	2021eko uztailaren 28an eta 29an
3.a	2021eko irailaren 1ean	2021eko irailaren 2an eta 3an	2021eko irailaren 3an eta 6an

Onartuen zerrendarekin batera, eskaeren itxaron-zerrenda bat argitaratuko dute masterretako zuzendari akademikoek, beharrezkoa izanez gero. Zerrenda hori baremoaren arabera ordenatuta egonen da. Graduondoko Ikasketen Bulegoak zerrenda horrekin beteko ditu ikaspostu hutsak.

3.- IKASKETAK AURREKO IKASTURTEETAN HASI ZITUZTEN IKASLEEN MATRIKULA

Matrikula

Aurreko ikasturteetako ikasleen matrikula (ikasleak aukeratuko du epea)
2021eko uztailaren 28an eta 29an eta 2021eko irailaren 3an eta 6an

4.- UNIBERTSITATE MASTERREKO IKASLE GUZTIEK EGIN BEHARREKO PROZEDURAK

Matrikula aldatzea edo baliogabetzea

Ikasturtean zehar aldatzen da irakasgaietako matrikula: irakasgaia ematen hasi den egunetik 10 eguneko epean beranduenez ere, baldin eta irakasgaia desagertu ez bada.

Matrikula baliogabetzea

Matrikula baliogabetzea
2021eko urriaren 6ra arte

Master Amaierako Lanaren matrikula egitea

Master Amaierako Lanaren matrikula egitea
2022ko maiatzaren 13ra arte

Kredituen balioa aitortzea eta transferitzea

Eskaerak	Ikastegiak ebazpena ematea	Kudeaketa administratiboa
2021eko urriaren 6ra arte	2021eko urriaren 31ra arte	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

Denbora batez utzitako ikasketak berriz hasteko eskaerak

Prozesua	Epea	Matrikula
Utzitako ikasketak berriz hastea	2021eko abuztuaren 13ra arte	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

Iraupen arauak ez bete arren ikasketekin segitzeko eskaerak

Prozesua	Epea	Matrikula
Iraupen Batzordea	2021eko irailaren 1era arte	Ikasle bakoitzari jakinaraziko zaio

5.- BESTE PROZEDURA BATZUK

UDAZKENEKO SEIHILEKOA

Prozesua	Epea
Deialdia udaberriko seihilekotik udazkeneko seihilekora aurreratzea	2021eko azaroaren 8tik 12ra
3. deialdiko epaimahaia eskatzea	2021eko abenduaren 10era arte
Udazkeneko seihilekoko irakasgaiak konpentsazioaren bidez gainditzeko eskaera	2022ko martxoaren 18ra arte

UDABERRIKO SEIHILEKOA

Prozesua	Epea
3. deialdiko epaimahaia eskatzea	2022ko maiatzaren 2ra arte
Udazkeneko eta udaberriko seihilekoko irakasgaiak konpentsazioaren bidez gainditzeko eskatzea	2022ko uztailaren 18ra arte

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Kanpora joanen diren ikasleak

Aldia	Ikasleek ikasketa konpromisoa betetzea	Irakasle arduradunek ikasketa konpromisoa balidatzea
Udazkenekoa eta/edo udaberrikoa	2021eko maiatzaren 10etik 28ra	2021eko maiatzaren 31tik ekainaren 11ra
Aldia	Ikasleek ikasketa konpromisoa aldatzea	Irakasle arduradunek ikasketa konpromisoa aldatzea
Udazkenekoa	2021eko urriaren 15era arte	2021eko urriaren 15era arte
Udaberrikoa	2021eko martxoaren 4ra arte	2021eko martxoaren 4ra arte

NUPera etorriko diren ikasleak

Aldia	Matrikula	Matrikula aldatzea
Udazkenekoa	2021eko irailaren 6tik 10era	2021eko irailaren 13tik 17ra
Udaberrikoa	2022ko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era	2022ko otsailaren 2tik 8ra

AKTAK ENTREGATZEA

Aktak	Ikasturtea	Epearen azken eguna
Udazkeneko seihilekoa	2021-2022	2022ko martxoaren 11ko 13:30 arte
Udaberriko seihilekoa	2021-2022	2022ko uztailaren 15eko 13:30 arte
Master Amaierako Lanak (defentsa irailean)	2021-2022	2022ko urriaren 3ko 13:30 arte

